

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MINERALEN TRATAMENDUAREN ETA USTIAPENAREN ARRISKU-PREBENTZIOA ETA INGURUMEN-KUDEAKETA (zeharkakoa)	Iraupena	50
		Berariazkoa	
Kodea	UF0764		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Mineral, arroka eta beste materialen tratamendu eta ustiapena	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Mineral, arroka eta bestelako materialen birrinketa eta ehoketa	Iraupena	160
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Mineralen birrinketa-, ehoketa- eta mikronizazio-eragiketak	Iraupena	80
	Garraio jarraituko makinaren kontrola		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0422_2 MINERAL, ARROKA ETA BESTELAKO MATERIALAK BIRRINTZEA, EHOTZEA ETA MIKRONIZATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3, LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin, segurtasunari eta ingurumenari dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Instalazio eta ekipoetako manipulazio-jardueretarako prebentzio- eta segurtasun-neurriak (sektoreko enpresetako segurtasun-planetan jasotzen direnak) aztertzea.

- E1.1 Instalazio eta ekipoetako manipulazioak eragin ditzakeen arriskuekin lotutako prebentzio- eta segurtasun-arauak zehaztea.
- E1.2 Arrisku-faktoreak eta arriskuak identifikatu eta ebaluatzea.
- E1.3 Produktu kutsatzaileekin egiten diren jardueretarako ingurumen-babeseko eskakizunak identifikatzea.
- E1.4 Lan-eremuen eskakizunak eta haiek prestatzeko prozedurak deskribatzea, eta laneko arrisku espezifikoak eta haiek zuzentzeko neurriak zehaztea.
- E1.5 Izan litezkeen istripuetarako lehen sorospenen eskakizunak aztertzea.
- E1.6 Langileek eta enpresak prebentzio- eta segurtasun-arloan dituzten eskubide eta betebeharrak definitzea.

A2: Segurtasun-plana aplikatzea, eta, horretarako, enpresako prebentzio- eta segurtasun-neurriak eta ingurumena babestekoak aztertzea.

- E12.1 Prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatzea detektatzen diren arriskuei, norbera babesteko ekipoak eta babes kolektibokoak hautatzea, egoera onean izatea eta behar bezala erabilitea barne.
- E12.2 Jarduera-protokoloak aplikatzea izan litezkeen larrialdietan, kasurako:
 - Zeregin espezifikoek arduratu behar duten pertsonak identifikatzea.
 - Detektatutako disfuntzio eta gertaera arriskutsuen berri ematea.
 - Larrialdietan eraikinak ebakuatzea, ezarritako prozedurei jarraikiz.
- E12.3 Gerta litezkeen istripuetan, oinarrizko osasun-neurriak eta lehen laguntzako teknikak aplikatzea eta zaurituak eramatea.

A3: Mineralen tratamendu- eta ustiapen-instalazio bateko arriskuak eta bertan garatzen diren prozesu desberdinetan hartu beharreko segurtasun-neurriak deskribatzea.

- E13.1 Prozesu desberdinetako makinaren manipulazioak eragin ditzakeen arrisku nagusiak eta horiei dagozkien neurri zuzentzaileak deskribatzea.
- E13.2. Tratamendu-instalazioko makinetako segurtasun-gailuak identifikatzea.
- E13.3 Tratamendu-instalazioan indarrean dagoen segurtasun-seinaleztapena ezagutzea eta errespetatzea.
- E13.4 Uhal garraiatzaileen manipulazioak eragin ditzakeen arrisku nagusiak eta arrisku horiek saihesteko hartu beharreko neurriak zerrendatzea.
- E13.5 Languneko mantentze-lanetako eta garbiketako irizpideak identifikatzea segurtasuna bermatzeko.
- E13.6 Prozesu bakoitzeko arrisku nagusiak saihesteko norbera babesteko ekipamendu egokiak aukeratzea.
- E13.7 Arrisku higienikoak zerrendatzea eta dagokion tratamendu-prozesuko zatiarekin lotzea.
- E13.8 Instalazioko arrisku elektriko nagusiak eta arrisku horiei dagozkien prebentzio-neurriak deskribatzea.
- E13.9 Materialak biltegitratzeak eragin ditzakeen arriskuak eta aplikatu beharreko prebentzio-neurriak deskribatzea.

A4: Mineralen tratamendu- eta ustiapen-eragiketetan sortutako hondakinak ezagutzea eta hondakin horien ontziak eta dagozkien biltegitratzeguneak identifikatzea.

- E14.1 Prozesu desberdinetan sortutako hondakinak sailkatzea eta ingurumenarentzat izan ditzaketen alderdi negatiboak azpimarratzea.
- E14.2 Hondakin bakoitzari dagozkion norbera babesteko ekipamenduak aukeratzea.
- E14.3 Ingurumen-babeseko ekipamenduen funtzionamendua eta horiek emisioak kontrolatzeko duten garrantzia ezagutzea.

EI4.4.Hauts esekia deuseztatzeko sistemak deskribatzea.

EI4.5 Tratamendu-instalazioan urak tratatzeko erabiltzen diren teknikak deskribatzea.

EI4.6 Iragazitako uren analisiak interpretatzea eska daitezkeen kalitate-parametroak betetzen dituzten zehazteko.

EI4.7 Sortutako hondakin desberdinak biltegitratzeko ontziak, lekuak eta baldintzak identifikatzea.

EI4.8 Ontziak, enbalajeak, tresna gastatuak eta mota guztietako hondakinak baztertzea eta hondakinen baimendutako kudeatzaile baten esku uzten dira.

Edukiak:

1. Laneko segurtasunaren eta osasunaren oinarritzko kontzeptuak.

- Lana eta osasuna.
- Lan-arriskuak.
- Arrisku-faktoreak.
- Lanetik eratorritako ondorioak eta kalteak:
 - Lan-istripua.
 - Gaixotasun profesionala.
 - Lanetik eratorritako beste kalte batzuk.
 - Ondorio ekonomikoak eta funtzionamendukoak.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko oinarritzko arau-esparrua:
 - Lan-arriskuen prebentziorako legea.
 - Prebentzio-zerbitzuen araudia.
 - Irismena eta oinarri juridikoak.
 - Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko direktibak.
- Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten erakunde publikoak:
 - Estatuko erakundeak.
 - Autonomia-erkidego mailako erakundeak.

2. Arrisku orokorrak eta haien prebentzioa.

- Tresna eta ekipoak erabiltzeak dituen arriskuak.
- Sistema eta instalazioak maneiatzeak dituen arriskuak.
- Kargen garraioak eta biltegitratzeak dituzten arriskuak.
- Lan-inguruneari lotutako arriskuak:
 - Agente fisiko, kimiko edo biologikoekiko esposizioa.
 - Sua.
- Lan-kargatik eratorritako arriskuak:
 - Neke fisikoa.
 - Neke mentala.
 - Lanean pozik ez egotea.
- Langileen segurtasunaren eta osasunaren babesa.
 - Babes kolektiboa.
 - Banakako babesa.

3. Larrialdietan eta ebakuazioetan egin beharrekoak.

- Istripu-motak.
- Zaurituaren lehen mailako ebaluazioa.
- Lehen laguntza.
- Sorospena.
- Larrialdi-egoerak.
- Larrialdi- eta ebakuazio-planak.
- Larrialdietako jarduerarako informazio osagarria.

4. Mineralen tratamendu-instalazioko arrisku espezifikokoak.

- Arrisku elektrikoak.
- Makinen mantentze-lanetako eragiketen arriskuak.
- Biltegitratzearen arriskuak.
- Arrisku higienikoak:
 - Zarata eta bibrazioak.
 - Hautsa.
- Makinei aplikatzeko segurtasun-neurriak.
 - Makinek sortutako arriskuak.
 - Segurtasun-neurriak.
 - Ordeztagiriak eta segurtasun-gailuak.
- Norbera babesteko ekipamenduak aukeratzekoak kontuan hartu beharreko faktoreak.

- Segurtasun-seinaleztapena:
 - ezaugarriak,
 - Motak.
 - Erabilera.
- Lantokiko ordena eta garbitasuna:
 - Jarduteko arau orokorrak.
 - Arriskuak.
 - Abantailak.

5. Ingurumenaren arloa mineralen tratamendu-instalazioan.

- Kutsadura prebenitzeko indarrean dagoen araudia.
- Hondakinak kudeatzeko indarrean dagoen araudia.
- Materialak eta hondakinak biltegitratzeko sistemak.
- Hondakinen eta botatzeko materialen bilketa.
- Hauts-emisioak.
- Kaptazio-ekipamenduak.
- Ur-arazketako sistemak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Mineral, arroka eta beste materialen tratamendu eta ustiapena